


Donostian - Agorrilak 27 .

- A. Lafitte agurgarria : biotzer .. bi edo iru itz .
Irigarai jaunak esaten zidan atzo zuri adierazteko .
- lengo igandean ez zuala etortzerik izan batzarrerera ; ba zuala zurekin itzegiteko gogoa bainan ..
 - aspaldi batean , noski , izentegirako "izen" lerro bat eskeini zeniola . Ba .. orain "izentegia" osaturik berriz agertzekotan dabilela , eta mesedez berari bidaltzeko agindutako "izen"-lerroa . Barkatu .
 - Alaberean , "nafar-predikuak" . Ikusteko zaleturik omen dago .
- Eta au neretik : aspalditik kezketan nago ,noiz eta nola zuri itzuli zuk emandako "iztegia" . Ementxe daukat txukun eta seguru jasoa , baina lotsa ematen dit ikusten dudan bakoitzean . Esan bezala .. garbira pasatzen asi ginan , eta pasa ere bai , baina lana luzea eta zaila izanik ..geiagoko algorik gabe gelditu ginan . Egia esan .. batzarrerera . onuntz , etortzen zeranen batean eramatea izango da noski onena . Nik , orruntz eramateko .. mugan,zerbaiten traba jarriko ote beldurtzekoa bait-da . Urrengo batean itz-egingo dugu .

Besterik gabe , Jaunagan Agur . Zure zure



Pedro Berrondo .


Piarres Lafitte Jauna
Ustaritz .

Biotzez agur eta zure azkenekoari

erantzutera noa :

- Lenbaitlen zure begiak sendatuko aal dizkitzu Jainkoak . Euskeraren onerako eta zure bearkizun guzietarako . Ar nere gogo onak eta nere apaiz-otoitzak .
- Eskatzen didazun B.Ā.P.-ko ale ori ba dut nere liburuen artean eta berealaxe bidaltzen diot zure adiskideari ; nik gero emen osatuko dut utsune ori . Zuk ematen ~~did~~kidazun liburuen ordain bezala dioa ; ez duzu bada paga-bearrrik . Zuri eskerrak .
- Ez duzu jakingo noski baina .. Diputazio-barruan sortutako lan-tegitxoa utzi egin dut ; aldi ontan daramagun aserre-giro ontan barrenak ez dit laguntzen nunbait . Orrexegatik luzatu da zure eskutitzari zor zitzaion erantzuna . Barka arren .

Eta berriz ere .. zure begietako osasuna Jaunari eskatuaz ..
Agur biotzez . Zure zure



Pedro Berrondo .

EUSKALTZAINDIA


ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

DELEGACION DE GUIPUZCOA
PALACIO DE LA DIPUTACION PROVINCIAL
SAN SEBASTIAN

Donostia'n Apirillak 17 .

Apsiz jaun eta euskaltzafia : Agur bero batekiñ ba'noa erantzuna ematera zuk emen utzitako galderari . Ara : Gaur agertu da Bidegaiñ andereñoa Aste Santuko bakazio-ondorean . Itz egifi dugu zuri zor dizugun erantzuna zertan ote dan . Dato batzuen bilduma egifa dauka andik eta emendik . Baiño Campion jaunak Moret'en biografia egifa du eta bera beste liburu baten barnean dago eta liburu au ezifi emengo liburutegitik atera .. Gaur pare-parean Protestante batzu agertu omen dira Diputazioan Ezarraga'ren Biblia fotokopiatzera .. eta baimena eman diotenean, galdetu omen dute ea zerbait ote zuten kopiatze-ko .. eta orduan Bidegain'ek eskatu die zuretzat Campion'en biografia ori kopiatzeko . Eta ortan gelditu omen dira .Biar edo etzi egifa egongo da . Eta dana nere gelara ekarriko omen dit , nik zuri eman dezaizudan . Nik uste .. onena izango dala , dana ementxe edukitzea zu onera Euskaltzain di'ko billerara etorri arte . Ez dira agun asko falta . Bidegain'ek bere bilduma ematen dianean , bear bada beste norbaitekifi ere itz egingo dut ea beste geigarriren bat ba'ote duan edo .. Agur ba Lafitte jauna . Barkatu luzapen au eta laister arte .

Biotz biotzez - Jaunañan


Pedro Berrondo .

*P. D. Nere aurrekoak Apezarue'koak ziran
XVI garrenean marke - Erreueri'ra - eto-
riak . Agur .*